

## Martin Villa eta Euskal Herriaren inbentoa

Deia, 1977-09-11.

Martin Villa-k eman du Euskal Herriaz duen definizioa: ez du geografi-mugarik.

Mugarik ez duen gorputz honek ez luke, beraz, ministroa kezkatu behar. Mamuak dira gorputzezko mugarik ez dutenak, eta hoiek aspaldi umeen komiketan dabilta, galdu dute inor ikaratzeko zuen ahalmen ikaragarri eta kilikatzaile hura.

Behar bada, ordea, estrukturaz ari zaigu Villa jauna hizketan.

Egitamurik ez ote du euskal Herriak erakutsi?

Araba, ba da bat, ez al da? Bizkaia ere bai, oker ez bagaude. Gipuzkoa ere bai. Nafarroa, hau izan da beste hirurekin eta gizalditan. Erresuma indartsu bat osatu zuena. Orduan, eta VIII gizalditik hasi, eta XIII arte, laurak, eta mugaz haruzko beste Lapurdi eta Zuberoa ere etxeko zirela, Euskal Herriak ba zuen gorputz bat.

Edo, noiztik hasi nahi du Martin Villa-k historia egiten?

Gero, egia da, Sakabanatu ziran odolez eta kulturaz herri bakar bat gorputzen zuten anai haiek. Baina Nafarroak erresuma aske izaten jarrai izan zuen, eta gainontzeko senideak bakoitzak berezko zituen askatasunak gorde zituzten, handiago zirenen babes antzeko batean bizi baziran ere; eta hala izan ez balitz, ez zuten Castilla-ko erregeak, banan bana, gure askatasunaren gordailu izateko zinik egingo. Eta egin behar izan errege denek, banan bana!

Orain arte, ez dute Euskal Herriek gorputzik galdu.

Ezta ispiriturik ere!

Hor dator 1512ko indarrezko inbasio itsusi eta baldar hura. Nafarroak, hala ere, nortasun osoarekin irauten du. Birreinato bat da. Beste mugaz honuzko hiru senideen babes politikoan geratzen da, baina laurak gordetzen dute nortasun politiko berezia. Eta mugak, Ebron daude oraindik.

Noiztik egin nahi du Martin Villa-k Euskal Herriaren historia?

Gizaldiak aurrera, atzo arte, eta XIX gizaldian Errege-dinasti istilu bat dela medio, guda itsu; bat sortzen da; guda horren eragingarri, mamia: Foruak; eta, non *egitazko* guda sei urte luzez, non orduko errege-gaia?: Euskal Herrian.

Ez du oraindik Euskal Herriak gorputzik galdu.

Ispiritua argi dabil Zumalakarregi-rekin dabilzan mutilen begitan eta tirotan.

Noiztik hasi nahi du Martin Villa-k gure Euskal Herriko gorputzaren *mugak* neurritzen? Madrilek bidaltzen dituen general general eta armada guziak ezagutzen dituzte ondo asko. Ebro pasatzea nahiko, itsasoraino.

Hiltzen da Zumalakarregi Bilboko atean, Begoñan; galtzen da guda hori. Gezurrezko pake baten maltzurkeria dela-ta. Eta dekretu gezurti batez, *baina lauak elkarrekin ofizialki azaltzen dira Espainiako konstituziopean lehenengo aldiz.*

Hemen oraindik Euskal Herriak gorputz bat ba du.

Mugak, hor, 1842-an pasatzen dira Ebro-tik Frantzia-ko estaturaino eta itsasoraino!

Mugak? Hara hor!

Hau ez da Martin Villa jauna, gure lasaialdi bati emana.

Historia hutsa da.

Baina, noiz arte nahi du honek gure gorputz politikoaren historia egin?

Urteak joan eta 1872an berriz lauak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, Madrid-eko gobernuaren aurka guda latz eta ikaragarri batean. Zergatik berriz *hemen*, eta zergatik beti *eragin berdina*, *Foruak*, eta zergatik *lauak beti elkarrekin!*

Eta guda galtzen da berriz. 1877an joaten dira *lehenengo aldiz euskaldunak Espainiako armadara*, eta abar. gero, Nafarroako paktoa, eta konziertoak. Baina 1931-an berriz elkarrekin *Lizarra-Estella*, lauak, Autonomi eske, Maniobra uste batek Nafarroaren borondatea zapurten duen arte.

Euskal Herria, hor dago oraindik bizi-bizirik.

Geroztik, dakiguna: guda, Heriotzak, hilketak, berrogei urte ilun; eta gero, Madrid-etik antolatuak izan direla ere, azken hauteskundeetan Autonomi *baten* alde agertzen dira Euskal Herriak. Eta, Euzkadi?

A! Hau esan nahiko zuen Martin Villak, bai.

Ba Euzkadi hortxe, gure begien aurrean, ari da politoki egokitzen, osatzen.

Ez al du ministro jaunak ikusten?

Mugitzen da ba!